

EGUNA ETA ORDUA: 2024, Apirilak 14 – 10:00

IRTEERA ETA HELMUGA GUNEA: Askatasuna Enparantza - Lasarte-Oria (Okendo enparantza ondoan)

ADIN-MUGA: Probaren egunean derrigorrezkoa da 12 urte beteak edukitzea. 18 urte baina gutxiago dutenek, gurasoen baimena sinatuta aurkeztu beharko dute zenbakia jasotzeko unean. Baimena hori [webgune ofizialeko](#) izen-emate ataletik jaitsi daiteke.

INFO: Ibilbidea Andatza menditik zehar doa eta antolatzaileek behar bezala seinaleztatuko dute. Parte hartzaile bakoitzak aukeratuko du zein egin nahi duen. Maila desberdineko ibilbideak izango dira.

Motza 25,7 km (desnibela: 862 m), Ertaina: 31,6 km (desnibela: 1100 m), Luzea: 42 km (desnibela: 1466m)

Ibilbide Ertaineko sarbidea ixtea 11:30

Ibilbide Luzeko sarbide ixtea 11:45

helmuga ixtea 13:00

Aurtengo oparia 50 euroko balio duen GOBIK maillota izango da.

Zeharkaldia amaitzean, parte-hartzaileak opariren baten jabe de den egiaztatu ahal izango du

IZEN-EMATEAREN PREZIOA:

Izen ematea: 35€

***** Txirrindularitza Federakuntzako lizentzia indarrean EZ duten parte-hartzaile guztiek, beste 3 € gehitu beharko dituzte prezio hauei aseguru osagarriagatik. Lizentzia dutela esaten dutenek eta, beraz, aseguru ordaintzen ez dutenek, ez dira babestuta egongo antolatzaileek kontratatzen duten istripu aseguruarekin.**

DORTSALA BILTZEA:

Dortsalak larunbatean, Apirilak 13, 10h30-13h30. bitartean **Urbil-eko Eroskin** eta lasterketa egunean, 8h. - 8:45h.bitartean Antonio Mercero Enparantza Egoitzan (Askatasun Enparantza-Lasarte Oria) jaso ahal izango dira. **Ahal den neurrian bezperan joatea gomendatzen da**

Zenbakia hartzeko, ondorengo aurkeztu beharko da: izen-ematearen konfirmazio pdf'a, NAN, 18 urtetik beherekoek gurasoen baimena sinatuta, eta, edukiz gero, ziklismo lizentzia indarrean. Beharrezko dokumentazioa aurkeztuz, beste parte-hartzaile baten zenbakia ere hartu ahal izango da.

BESTE ZERBITZUAK:

Ibilbidean zehar Hornidura solido eta likidoa egongo da.

Parte artzaileak bizikleten garbitegia izango dute bere esku helmugatik urbil..

Proba bukatzerakoan, parte-hartzaile guztiei hamaiketako bat eskeiniko zaie Okendo Enparantzan bertan.

ARAUTEGIA:

1. Kasko babeslea proba guztian zehar jarrita eraman behar da; hau beteko ez balitz, probatik kanporatu daiteke.
2. Komenigarria da mugikorra eramatea.
3. Emandako zenbakia beti begi-bistan egon behar da bizikletaren aurrekaldean.
4. Antolatzaileek markatutako ibilbidea errespetatu behar da, nahiz eta honek aldaketak jasan aurretik edo proba bera ospatzen den bitartean.
5. Beharrezkoa izenez gero, antolatzaileek ibilbidea eta kilometrajea aldatzeko eskubidea bere esku dute.
6. Segurtasun Taldearen aholku eta oharrak aintzat hartu beharko dira. Talde hau antolatzaileek, Cruz Roja eta antolatzaileek izendatutako boluntarioek osatzen dute eta peto identifikagarria izango dute soinean.
7. BTT Lasarte-Oria Rural Kutxa'ren ibilbidea Andatza mendian zehar ospatzen da, eta paraje hauetaz denak disfrutatzen jarrai dezagun, parte-hartzaile bakoitzari honetan lagundu dezan arren eskatzen diogu, dena ondo garbi utziz, ez paperik ez zaborrik lurrera botaz eta hondakinak horretarako jarritako lekuetan sartuz.
8. Segurtasun Taldeak probatik edozein parte-hartzaile atera dezake, osasun-zerbitzu edo antolatzaileen ustez ez badago jarraitzeko egoera onean edo probaren logistika edo lasterketa hasieran berri emango den eta aurreikusitako ordutegiak arriskuan jartzen baditu.
9. Borondatez edo derrigortuta proba uzten duen parte-hartzaileak, bere zenbakia antolatzaileei edo segurtasun taldeko kideari emango dio lagatzen duen momentuan. Bere erabakia izango da helmuga punturaino bere kontura jarraitzea baina ezingo du ibilibide berdinetik jarraitu, azken ibiligailu ofizialaren atzetik izan ez ezik. Ezin izango du inongo oztoporik jarri probaren igarotzeari eta antolatzaileek ez dute inongo erantzukizunik edukiko parte-hartzaile honengan.
10. Aseguru osagarriaz egindako inskripzioak istripu-aseguru bat barne du.
11. Idatziz eta proba bukatu ondoren gehienez 60 minutatara egindako erreklamazioak onartuko dira.
12. Parte-hartzaileek bere irudia eta probaren garapenarekin zerikusia duen informazio guztia antolatzaileei uzten diete hauen erabilerarako, kirol ekitalditako antolatzaile bezala egin ditzaketan argitalpen, promozio edo dibulgazio-ekintzetarako.
13. Behin izen-ematea eginda, ez da inola ere ordaindutakoa bueltatuko eta ezin izango zaio ezta beste pertsona bati utzi.
14. SALBUESPEN ERANSKINA: Proba honetan izen-ematean parte-hartzaileak arautegia onartzen du eta ondorengo baieztatzen du: